

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko otsailaren 7ko erabakia, udaltzaingoarean diziplina-dosierekin lotutako eskumenak eskuordetzeari dagokionez

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko ekainaren 22an hartutako erabakiaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarraren titulartasuneko zenbait eskumen eta zeregin eskuordetu zitzaizkion Jon Armentia Fructuoso zinegotziari, Funtzio Publikoaren Sailarekin lotuta; besteak beste, "diziplina-dosierren izapideak, funtzionarioa zerbitzutik bereiztea eta lan kontratupeko langileak botatzea izan ezik".

Ondoren, eskuordetze erregimen hori aldatu egin zen, Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko uztailaren 14ko erabakiaren bidez. Horrenbestez, arau-hauste arin edo larriengatik udaltzaingoko langileen aurka hasitako diziplina-dosierrak izapidetzeko eskumena Segurtasun Saileko zinegotzi ordezkari Iñaki Gurtubai Artetxeren esku utzi zen; hala ere, gainerako diziplina-dosierrak Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkariaren eskumena izaten jarraitu zuten, bai udaltzaingoko langileen arau-hauste oso larriak bai gainerako udal langileen edozein motako diziplinazko arau-hausteak, 2023ko ekainaren 22an erabakian zehaztutakoari jarraituz.

Iñaki Gurtubai Artetxe jaunak kargua utzi ondoren, bere garaian udaltzaingoko langileen aurkako diziplina-dosierrei dagokienez eskuordetu zitzaizkion eskumenak eskuordetu beharra dago.

Udal honetako administrazioaren kudeaketa eta funtzionamendua eraginkorragoak eta efizienteagoak izan daitezen, komenigarritzat jo da udaltzaingoko langileen aurka arau-hauste arinengatik abiarazitako diziplina-dosierrak izapidetzea Segurtasun Saileko zuzendari nagusiaren eskumenekoa izatea, eta udaltzaingoko langileen aurka arau-hauste larriengatik abiarazitako diziplina-dosierrak izapidetzea, berriz, Herritarren Segurtasunaren Saileko zinegotzi ordezkariaren eskumena izatea, baita gainerako diziplina-dosierrak izapidetzea ere, bai udaltzaingoko langileen arau-hauste oso larriak bai gainerako udal langileen edozein motako diziplinazko arau-hausteak, 2023ko ekainaren 22ko erabakian zehaztutakoari jarraituz.

Horrenbestez, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 127.2 artikulua araberak, erabaki-proposamen hau egiten dio alkateak Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Segurtasunaren Saileko zuzendari nagusi José Antonio Haro Romerori eskuordetzea udaltzaingoko langileen aurka arau-hauste arinengatik abiarazitako diziplina-dosierrak izapidetzeko eskumena.

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkari Jon Armentia Fructuosori eskuordetzea udaltzaingoko langileen aurka arau-hauste larriengatik abiarazitako diziplina-dosierrak izapidetzeko eskumena, baita gainerako diziplina-dosierrak izapidetzea ere, bai udaltzaingoko langileen arau-hauste oso larriak bai gainerako udal langileen edozein motako diziplinazko arau-hausteak, horiek ere bere eskumenekoak baitira.

Bigarrena. Datoren egunean jarriko da indarrean erabaki hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko otsailaren 7an

Alkatea

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA